

ELIKADURA OSAGARRIAK

COVID-19ren inguruko pandemiarekin loturik herritarrek duten kezka gero eta handiagoa dela ikusiz, elikadura osagarriak saltzen ari den jendea hauteman duela ohartarazi du Elikadura eta Nutrizio Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESAN). Jende hori, pandemia hau eta bere inguruan kontsumitzaileek duten kezka aprobetxatuz, **COVID-19 prebenitzeko, tratatzeko edo sendatzeko** propietateak dituztela dioten elikadura-osagarriak saltzen ari da. Saltzaile horiek euren irabaziak handitzen saiatzen ari dira, elikadura-osagarriak sustatzeko eta saltzeko baimenik ez duten eta debekatuta dauden elikaduraren eta propietate osasuntsuen inguruko adierazpenak eginez.

Kontsumitzaileei gogoratu behar zaie elikadura-osagarrien helburua dieta arruta osatzea dela, eta produktu horiei ezin zaiela gizakien gaixotasun bat prebenitzeko, tratatzeko edo sendatzeko propietaterik egotzi, eta inola ere ezin dutela halako propietateak dituztela esan.

Gogoratu elikadura-osagaiak:

- Modu galenikoan eta dosifikazio-jarraibideak betez salmentarako baimentzen diren elikagai bakarrak direla. Hortaz, kasu askotan kontsumitzaileak ez daki elikagai baten edo medikamentu baten aurrean dagoen.
- Kontsumitzaileak erraz eros ditzake eta ez dute mediku-errezetarik behar.
- Medikamentuek ez bezala, osagaiak elikagai gisa sailkatuta daudenez, komertzializatzen hasi aurretik ez dute segurtasun-kontrolik gainditu behar eta haien onurak ez daude frogatuta.
- Osagai horiei ezin zaie gizakien gaixotasun bat prebenitzeko, tratatzeko edo sendatzeko propietaterik egotzi, eta ezin zaie, inola ere, propietate horiei erreferentzia egin.
- Ez dira medikamentuak eta hauen kontsumo arduragabeak kalte larriak eragin ditzake.

Gomendioak:

Ez erosi produkturik komertzializazio-bide ez seguruen bitartez.

Etiketen kontsumo-jarraibideak errespetatu.

Elikadura osagarriak hatzen hasi aurretik, galdetu zure medikuari.

Produktu freskotan oinarritutako elikagai aberats osasuntsua kontsumitu. Ez duzu elikadura-osagarrien beharrik izango.

Ez dago Koronabirusaren infekzioa prebenitu, tratatu edo sendatuko duen elikadura-osagarriarik eta, beraz, merkatuan ezin du egon ezaugarri horiek egozten zaizkion produkturik

Elikadura

Osagarriei

buruzko

informazio

gehiago:

<https://www.euskadi.eus/informacion/alimentacion-especial/web01-a3contal/es/>